



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 31

31. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak haur eskolen eta, oro har, 0-3 zikloaren inguruan dituen erronkei eta politika orokorrari buruzkoa. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 'Hazte oír' plataformak ikastetxeetan egindako kanpainari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzurako 2019ko lan-eskaintza publikorako proposamenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroan ozonoak eragindako aire-kutsadura murrizte aldera eta Erriberako Airearen Kalitatea Hobetzeko Plana taxutze aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).
- Galdera, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, 2019ko urriaren 24ko Osoko Bilkuran iragarritako PFEZaren deflaktazioaren inpaktuari buruzkoa. Koldo Martínez Unionabarrenetxea jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroa ECOFINen egoteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazioz 2018an irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat erreserbatutako kontratuei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua egun kudeatzen ari den proiektu estrategikoei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Buzintxuriko Osasun Etxean larrialdiak artatzen hasteko proiektuari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Foruzainen erretiro aurreratuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Foruzaingoan “ordu-poltsa” ezartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan egiturazko orduak egiteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako herrietan helduentzako euskara-eskolak ematea baimentze aldera ezarritako prozedurari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, euskaraz jakitea deialdi publikoetan merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea merezimendu gisa baloratu deneko oposizio-lehiaketei eta lekualdatze-lehiaketei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriaren testu bateginarekin foru lege proiektu bat aurkezteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako ibaietako presa nahiz presa txikiak kentzeari eta natur ibilguak leheneratzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zertan den amianto-eraikuntzak, -materialak eta -egiturak kentzeko eta tratatzeko prozesua. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zertan den “Panpako luma-mottoaren” eta “sagar-barraskiloaren” izurritea. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Sodena enpresa publikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafiko-gorabeherei, istripuei edo harrapatzei buruzkoa. María Elena Llorente Trujillo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, adinekoentzako egoitza batean toki publiko edo itundu bat eskuratzeko itzarote-zerrendari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, NA-6900 errepidearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasunari buruzkoa. Galdera erretiratzea (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Arauak, Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar dituen bi kideak hautatzekoak (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako sinboloei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2019ko azaroaren 19ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/PRO-00012).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak haur eskolen eta, oro har, 0-3 zikloaren inguruan dituen erronkei eta politika orokorrari buruzkoa.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Gobernuak haur eskolen eta, oro har, 0-3 zikloaren inguruan dituen erronkei eta politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren bozeramaileak, Legebiltzarraren Araudiari jarraikiz, ondoko interpelazioa egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak haur eskolen eta, oro har, 0-3 zikloaren inguruan dituen erronkei eta politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2019ko urriaren 22an

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

F saila:
GALDERAK

Galdera, 'Hazte oír' plataformak ikastetxeetan egindako kanpainari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, 'Hazte oír' plataformak ikastetxeetan egindako kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpeguik Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak adierazpen instituzional bat onetsi zuen irailaren 30ean, zeinaren bidez arbuiatu egin baitzuen "Hazte oír" plataformaren kanpaina, errespetuaren, berdintasunaren eta askatasunaren aurkako ideiak transmititzen dituela iritzita. Adierazpenean orobat eskatzen zen neurriak har zitezen, baina jakin dugunez kanpaina horretako materiala ikastetxeetara iristen ari da. Hori dela-eta, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartu du kanpaina horri zabalkundea ematea ekiditeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzurako 2019ko lan-eskaintza publikorako proposamenari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzurako 2019ko lan-eskaintza publikorako proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galde-

ra hau aurkeztzen dio Legebiltzarreko Mahaiari, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak 2019rako lan-eskaintza publikoari buruz informatu zuen Funtzio Publikoaren Mahai Orokorraren azken bileran; zehazki, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzurako 7 lanpostu izan direla informatu zuen.

Suhiltzaileen plantilla berritzeko akordioa 2010ean sinatu zenetik, egiturazko orduak egitea edo parkeak ixtea ekiditeko gutxienez ere 388 kabo eta suhiltzaile operatibo –alegia, bigarren jarduerara pasatzen direnak kenduta geratzen direnak– behar direla uste da. Departamentuaren ustez, kopuru hori lortu ahalko da 2019rako lan-eskaintza publikoaren proposamen honekin?

Iruñean, 2019ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroan ozonoak eragindako aire-kutsadura murrizte aldera eta Erriberako Airearen Kalitatea Hobetzeko Plana taxutze aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan ozonoak eragindako aire-kutsadura murrizte aldera eta Erriberako Airearen Kalitatea Hobetzeko Plana taxutze aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, hurrengo azaroaren 7rako aurreikusitako Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Orain dela gutxi ezagutu dugu Ekologistak Martxan erakundearen txosten bat, zeinean esaten baita Nafarroako 298.000 biztanlek arnastu dutela ozonoak kutsatutako airea 2019ko udan.

Ozonoak kutsatutako gero eta aire gehiago dago, lehenik eta behin, ziklo ekonomiko berriarekin erregai fosil gehiago erretzen delako, eta horri gehitu behar zaio klima-aldaketaren eraginez tenperatura igotzen ari dela.

Gaur egun, indarreko legeriaren arabera, nahi-taezkoak dira airearen kalitatea hobetzeko planak, baina ozonoaren kasuan Nafarroako Gobernuak Erriberakoa taxutu gabe jarraitzen du, eta horrek eragin nabarmena dauka bertako 187.000 biztanleengan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer neurri hartuko du Nafarroan ozonoaren bidezko aire-kutsadura murrizteko eta, zehazki, Erriberako airearen kalitatea hobetzeko plana taxutzeko?

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2019ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programa. Programa hori 23tik 30 urtera bitarteko gazteei zuzendua da, eta ohiko etxebizitzaren alokairuaren errenta ordaintzen laguntzeko prestazio bermatu bat ematean datza.

Programa abian jarri zenetik ia urtebete igarota, Nafarroako Gobernuari galdetzen diogu ea zer balorazio egiten duen programari dagokionez, eta ea zer neurri aurreikusten duen ezartzea programa hobetzeko.

Iruñean, 2019ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Galdera, 2019ko urriaren 24ko Osoko Bilkuran iragarritako PFEZaren deflaktazioaren inpaktuari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ UNIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Unionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, 2019ko urriaren 24ko Osoko Bilkuran iragarritako PFEZaren deflaktazioaren inpaktuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ogasun Departamentuak zer kalkulu egiten du Ogasuneko kontseilariak 2019ko urriaren 24ko Osoko Bilkuran iragarri zuen PFEZaren tarifaren deflaktazioaren inpaktua dela-eta?

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Nafarroa ECOFINen egoteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa ECOFINen egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroa ECOFINen egoteari dagokionez, zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera eta zer jarduketak egiteko asmoa dauka?

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazioz 2018an irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat erreserbatutako kontratuei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazioz 2018an irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat erreserbatutako kontratuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta

Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Kontratuei buruzko Foru Legea aplikatuz irabazi-asmorik gabeko Enplegu Zentro Berezientzat eta laneratze-enpresentzat 2018an zehar erreserbatutako kontratuek zer portzentaje egiten dute? Eskatzen da bai datu globala, bai departamentu eta enpresa publiko bakoitzari buruzkoa.

2. Aurten zer irizpideri jarraitu zaio portzentaje hori zehazteko? Aurreko urteetako berbera al da?

3. 2018an inolako departamentuarterko talde edo organoren eskutik sustatu eta kontrolatu al da erreserba hori? Organo edo talde horiek kasua bada eginiko bilera guztien aktak eskatzen dira.

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua egun kudeatzen ari den proiektu estrategikoei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua egun kudeatzen ari den proiektu estrategikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak gaur egun kudeatzen dituen proiektu estrategikoen zerrenda, eta horien norainokoa.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, Buztintxuriko Osasun Etxean larrialdiak artatzen hasteko proiektuari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Buztintxuriko Osasun Etxean larrialdiak artatzen hasteko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, Nafarroan lan-istripuen indizeak azken urteotan izandako igoerak sortutako kezka dela-eta, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zer kostu du Buztintxuriko Osasun Etxea birmoldatzeko proiektuak, zentro horri larrialdizkerbitzua gehitzea erabaki ondoren?

Xehetasunak plan funtzionalari, administrazio-izapideei eta aurreikusitako ekintza-kronogramari buruz.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Foruzainen erretiro aurreratuari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Foruzainen erretiro aurreratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Polizieiei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen xedapen gehigarriak, Foruzaingoaren kideen erretiro aurreratua dela eta, honako hau dio:

“Gobernu zentralak 2018. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen “Nafarroako Foruzaingoari erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak aitortzea” izenburuko

ehun eta berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako errege dekretua onesten duenetik 6 hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu koefiziente murriztaile horien onuradun gerta litezkeen foruzainen erretiro-adina aurreratzearen eraginkortasuna aurrekontu bidez gaitzeko”.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari:

Xedapen gehigarri horren onespina eta gero, bidali al zaio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari edo espainiar Gobernuaren beste erakunderen bati Departamentuak ordura arte igorritakoaz bestelako dokumentaziorik?

Baiezkoan, noiz, eta zeri buruzko dokumentazioa zen?

Xedapen gehigarri horren onespina eta gero, Departamentuari eskaerarik egin al dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak edo espainiar Gobernuaren beste erakunderen batek, 2019ko uztailera arte igorritakoaren osagarri moduko informazio edo dokumentaziorik bidal zezan?

Departamentuak zer zuzemen egiteko asmoa dauka, Diruzaintza Nagusiak onespina eman diezaien Foruzaingoaren langileriaren erretiro aurreratuaren aukerari?

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Foruzaingoan “ordu-poltsa” ezartzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Foruzaingoan “ordu-poltsa” ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta idatzizko erantzuna eman diezaien Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak.

Nafarroako Polizieari buruzko azaroaren 29ko 23/2018 Foru Legea onetsi zenez geroztik, Foruzaingoaren Mahai Sektorialean negoziazio-proze-

su bat egin zen Departamentu eskudunaren ordezkariaren eta ordezkari sindikalaren artean, “ordu-poltsa” deritzonari buruz, zeinaren araubidea jaso baitzuen abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legeak, 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, eta akordio bat lortu zen haren aplikaziorako.

Honako galdera hauek egiten dira:

“Ordu-poltsa”ri buruzko akordioa Foruzaingoaren Mahai Sektorialean lortu zenez geroztik, zergatik ez du aplikatu Departamentuak eta, zehazki, Foruzaingoaren Burutzak?

“Ordu-poltsa” delakoa Foruzaingoan noiz aplikatuko da aurreikusten du Departamentuak?

“Ordu-poltsa”n izen emandako Foruzaingoaren langileek eginiko orduak ordaintzea ahalbidetuko duen ordu-kontentsazioko osagarriaren kostua egotziko al zaio Nafarroako Gobernuaren soldatasaren osotasunerako aurreikusten den gehikuntza globalari, ala bestelako tratamendu bat izanen du, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorren I. kapituluaren gehikuntzaren gainekoa?

Iruñean, 2019ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan egiturazko orduak egiteari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan egiturazko orduak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta idatzizko erantzuna eman diezaien Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak.

Departamentuak 2019rako lan-eskaintza publikoari buruz informatu zuen Funtzio Publikoaren Mahai Orokorraren azken bileran; zehazki, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzurako 7 lanpostu izanen direla informatu zuen.

Talde parlamentario honen ustez, lanpostuen kopuru hori ez da inondik ere aski kontuan hartzen badira Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren

egiturazko beharrianak, Mahai Sektorialean ordezkariak duten sindikatuekin 2017ko martxoaren 24an lortutako akordioa –plantillaren % 82,6ren babesa izan zuen– eta sindikatuekin lan-eskaintza publikoari dagokionez bere garaian lortutako akordioak. Hori dela-eta honako galdera hauek aurkeztu ditut, idatziz erantzun dakizkidan:

1.- Zerbitzuko langileek egiturazko zenbat ordu egin dituzte erreskate teknikorako taldea sortu zenetik 2019ko urriaren 15era bitarte?

2.- Zerbitzuko langileek egiturazko zenbat ordu egin dituzte azken anbulantzia erosi zenetik 2019ko urriaren 15era bitarte?

3.- Zerbitzuko langileek zenbat ordu egin dituzte 2016tik 2019ra bitarte parkeak irekita mantentzeko behar diren gutxienekoak betetzeko? Zer parketan egin behar izan ziren ordu horiek?

4.- 2016tik gaur bitarte zenbat egunetan ezin izan dira gutxienekoak bete? Zer parketan gertatu zen hori?

5.- Zerbitzuko langileek egiturazko zenbat ordu egin dituzte Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuari atxikitako langileen egiturazko orduak arautzen dituen 51/2016 Foru Dekretuaren babesean dekretua indarrean sartu zenetik 2019ko urriaren 15era bitarte?

6.- Zenbat suhiltzailek egin dituzte egiturazko orduak 51/2016 Foru Dekretuaren babesean?

Iruñean, 2019ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako herrietan helduentzako euskara-eskolak ematea baimentze aldera ezarritako prozedurari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako herrietan helduentzako euskara-eskolak ematea baimentze aldera ezarritako prozedurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafar hedabideetan jasotako informazio bartzuen arabera, Geroa Bai koalizioak jakinarazten

du ezen Hezkuntza Departamentuak euskara-klaseak eskainiko dituela Nafarroako Erriberako hainbat herritan, Helduen Hezkuntza Iraunkorren (HHI) bitartez

Informazio horien arabera, hasiera batean Hezkuntza Departamentuak euskara-irakaspenak Cascanten bakarrik egitea onetsi zuen, HHIrako sinadura-bilketa baten ondoren, eta ezezkoa eman zion Castejónen eta Tuteran irakaskuntza hori eskaintzeari. Alabaina, oraingoan irizpidea aldatu egin da, eta badirudi aipaturiko bi herrietan ere eskaini behar dela.

Gauzak horrela, parlamentari honek galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza Departamentuari:

Zein da Departamentuak berak ezarritako prozedura, Helduentzako euskara-klaseak Nafarroako edozein herritan baimentzeari dagokionez? Eskabidea zer organori aurkeztu behar zaion; prozedura; baimentze-irizpideak, eta baimentzea ebazteari buruzko araudia.

Eremu ez-euskaldunean zein diren Hezkuntza Departamentuaren menpeko euskara-ikastaldeak; herria, ikasle-kopurua eta talde bakoitzak astean zenbat ordu.

Iruñean, 2019ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, euskaraz jakitea deialdi publikoetan merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkezturiko galdera, euskaraz jakitea deialdi publikoetan merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 216/2019, 217/2019 eta 218/2019 epaiek deusez deklaratu dituzte eremu mistoan, eremu ez-euskaldunean eta foru erkidegoko zerbitzuetan euskara merezimendu gisa baloratzeari buruzko 31., 35. eta 38. artikulua, epaien bidez ezarri baita euskaraz jakitea nahitaz exigitzean ez dela egin lanpostuen ezaugarrien arabera balorazio indibidualizatu, proportzionatu eta egoki bat. Hala ere, ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuak

merezimendu gisa ezartzen zuen euskaraz jakitea eremu mistoko lanpostuen lehiaketa guztietan, baldin eta jakite hori nahitaz eskakizun gisa ezarri ez bada. Kontuan hartu beharra dago zerbitzu zentral gehien-gehienak eremu mistoan kokaturik daudela.

Foru dekretu horren aplikazioak zer eragin izan duen jakiteko, honako informazio hau eskatzen dut:

Nafarroako Gobernuak 2009tik hona oposizio bidez egindako zer deialditan baloratu den euskara merezimendu gisa. Informazioa urtez urte xehakaturata jaso nahi dut, deialdi bakoitzean eskaintzen ziren lanpostu-motak eta lanpostuen kopuruak adierazita, bai eta euskaraz, frantsesez, ingelesez eta alemanez jakiteagatik ematen zen puntuazioa ere.

Nafarroako Gobernuak 2009tik hona oposizio-lehiaketa bidez egindako zer deialditan baloratu den euskara merezimendu gisa. Informazioa urtez urte xehakaturata jaso nahi dut, deialdi bakoitzean eskaintzen ziren lanpostu-motak eta lanpostuen kopuruak adierazita, bai eta euskaraz, frantsesez, ingelesez eta alemanez jakiteagatik ematen zen puntuazioa ere.

Nafarroako Gobernuak 2009tik hona merezimendu-lehiaketa bidez egindako zer deialditan baloratu den euskara merezimendu gisa. Informazioa urtez urte xehakaturata jaso nahi dut, deialdi bakoitzean eskaintzen ziren lanpostu-motak eta lanpostuen kopuruak adierazita, bai eta euskaraz, frantsesez, ingelesez eta alemanez jakiteagatik ematen zen puntuazioa ere.

Iruñean, 2019ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea merezimendu gisa baloratu deneko oposizio-lehiaketei eta lekualdatze-lehiaketei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea merezimendu gisa baloratu deneko oposizio-lehiaketei eta lekualdatze-lehiaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2003tik gaur arte euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea merezimendu gisa baloratu den oposizio-lehiaketen eta lekualdatze lehiaketen zerrenda, horietako bakoitzari buruz honako hauek zehaztuta:

– Deialdiari aplikatu beharreko foru dekretua.

– Lanpostuen kopurua.

– Lehiaketaren fasean puntuazio osotik hizkuntza bakoitzari emandako balorazioaren ehunekoak.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriaren testu bateginarekin foru lege proiektu bat aurkezteari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriaren testu bateginarekin foru lege proiektu bat aurkezteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta idatzizko erantzuna eman diezaien Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak.

Apirilaren 4an, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legea. Legea 2019ko apirilaren 16an argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak, eta 2019ko urriaren 16an sartu zen indarrean, azken xedapenetako laugarrenaren arabera.

Legearen azken xedapenetako hirugarrenaren arabera, berriz, "foru lege hau argitaratzen denetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari foru lege proiektu bat igorri beharko dio, zeinaren bidez arau-gorputz bakarrean bilduko baitira, testu bategin modura, (...) Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berrian dauden lege-xedapen indardunak".

Departamentuaren lehengo arduradunak araudi horren testu bategin bat helarazi zion arduradun berriari, 21/2019 Foru Legearen azken xedapenetako hirugarrenak agindutakoa betetze aldera.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dut:

Gobernuak zergatik ez du bete Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen azken xedapenetako hirugarrenak ezarritako epea, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berrian dauden lege-xedapen indardunak arau-gorputz bakarrean, testu bategin modura, bilduko dituen lege-xedapen indardunak foru lege proiektu bat igortzekoa?

Gobernuak noiz aurreikusten du aurkeztuko duela Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen azken xedapenetako hirugarrenak aurreikusitako proiektu hori?

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako ibaietako presa nahiz presa txikiak kentzeari eta natur ibilguak leheneratzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako ibaietako presa nahiz presa txikiak kentzeari eta natur ibilguak leheneratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako ibaietako presa nahiz desbideratze-presak kentzeari eta natur ibilguak leheneratzeari dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

Lehena. Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera?

Bigarrena. Zer jarduketa aurreikusi dira aurtengo egiteko?

Hirugarrena. Halakorik baldin badago, egin beharreko jarduketa lehenetsien plangintza jaso nahi dut.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakitekoa ea zertan den amianto-eraikuntzak, -materialak eta -egiturak kentzeko eta tratatzeko prozesua.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, jakitekoa ea zertan den amianto-eraikuntzak, -materialak eta -egiturak kentzeko eta tratatzeko prozesua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Amiantozko eraikuntzak, materialak eta egiturak erretiratzeko eta tratatzeko prozesuari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Lehen. Orain arte abiarazitako neurrien eraginkortasunaren eta efizientziaren balorazioa.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak ezarriko dituen neurri berriei buruzko informazioa, baldin eta neurri gehiago ezartzen badu.

Hirugarrena. Nafarroan amiantoa zertan den adierazten duen dokumentazioa igortzea eskatzen dut.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakitekoa ea zertan den “Panpako luma-mottoaren” eta “sagar-barraskiloaren” izurritea.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, jakitekoa ea zertan den “Panpako luma-mottoaren” eta “sagar-barraskiloaren” izurritea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut “Panpako luma-mottoaren” eta “sagar-barraskiloaren” izurritearen hedapenari dagokionez:

Izurritea zertan den eta aurreikusitako neurriak.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Sodena enpresa publikoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Sodena enpresa publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sodena enpresa publikoari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

– Gobernu berriak zer helburu ezarri dion bere buruari.

– Enpresaren egituraren egindako aldaketen justifikazioa eta aldaketa horiek bilatzen dituzten helburuen definizioa.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafiko-gorabehereri, istripuei edo harrapatzeei buruzkoa.

MARÍA ELENA LLORENTE TRUJILLO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Elena Llorente Trujillo andreak aurkezturiko galdera, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafiko-gorabehereri, istripuei edo harrapatzeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Elena

Llorente Trujillo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Jakin izan dugunez, Berrikuntzaren Hiria etorbidearen sarrerako biribilgunean (PA-33 errepidean) nabarmen handitu da trafiko-istripuen eta harrapatzeen kopurua, asko eta asko direlako bide horren erabiltzaileak inguruan Ingeteam, Siemens Gamesa, Acciona eta beste enpresa batzuk egoteagatik. Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

1. Nafarroako Gobernuak dakienez, zenbat trafiko-gorabehera, istripu edo harrapatze gertatu dira hor azken bi urteotan?

2. Nafarroako Gobernuak ba al du egoera hori arintzeko neurririk hartzeko asmorik?

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Elena Llorente Trujillo

Galdera, adinekoentzako egoitza batean toki publiko edo itundu bat eskuratzeko itxarote-zerrendari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, adinekoentzako egoitza batean toki publiko edo itundu bat eskuratzeko itxarote-zerrendari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du adinekoentzako egoitza batean

toki publiko edo itundu bat eskuratzeko itxarote-zerrendan dauden pertsonen kopuruari buruz (10-19/PES-00042). Honako hau da Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatu beharrekoa:

Gaur egun, adinekoentzako egoitza batean toki publiko edo itundu bat eskuratzeko itxarote-zerrendan dauden pertsonen kopurua.

2019ko abuztuaren 31n, diru publikoz finantzatutako egoitza-toki bat eskuratzeko itxaroten ari diren pertsonak 96 dira. Horretaz gainera, 963 pertsona daude zerbitzuari lotutako prestazio baten bidez diru publikoz finantzatutako egoitza-toki pribatu batean. Horietatik, 582 pertsona daude PAGNArekin itunik ez duten zentroetan, eta ez dute toki bat lortu nahi toki publikoak dituen

beste zentro batean. Beste 381 pertsona zerbitzuari lotutako prestazio baten bidez finantzatutako toki pribatuetan daude, toki itunduak dituzten zentroetan, eta horrenbestez, egoitza-toki itundu bat eskuratzeko zain, gehienak bizi diren egoitza berean.

Horietatik, zenbat dauden zerbitzuari lotutako prestazio bat jasotzen, zenbat ari diren beste prestazio edo zerbitzu bat jasotzen, eta zenbatek ez duten inolako prestazio edo zerbitzurik jasotzen.

88 pertsona beren etxebizitzan daude, beste prestazio bat jasoz (27 eguneko zentro batera joaten dira edo eguneko egonaldiren bat izaten dute,

eta 61k familia-inguruneko zainketerarako laguntza ekonomikoa jasotzen dute), eta 8 pertsona beren etxebizitzan daude beste inongo prestaziorik jaso gabe. Zortzi pertsona horietatik, 7 duela hilabete baino gutxiago atalera iritsitako espedientei dagozkie, eta zortzigarrena mendetasunik ez duen pertsona bat da, etxean beste prestazio batzuk jasotzeko eskubiderik ez duena.

Itxarote-zerrendan dauden pertsonen kopurua, gizarte zerbitzuen arloaren arabera xehakaturik.

Hona itxarote-zerrendan dauden pertsonen kopurua, gizarte zerbitzuen arloaren arabera xehakaturik:

BARRUTIA	ZLPak	ETXEAN	GUZTIRA
Iruña eta Iruñerria	267	78	345
Lizarra	37	6	43
Tafalla	11	3	14
Tutera	47	5	52
Ipar-ekialdea	14	1	15
Ipar-mendebaldea	5	3	8
GUZTIRA	381	96	477

Egoitza-toki publiko edo itundu bat eskuratzeko batez besteko itxarote-aldia, 2015eko urtarrilaren 1ean, 2016ko urtarrilaren 1ean, 2017ko urtarrilaren 1ean, 2018ko urtarrilaren 1ean, 2019ko urtarrilaren 1ean eta 2019ko uztailaren 1ean.

Batez besteko itxarote-aldia aldatzen da pertsonen aurrez diru publikoz finantzatutako egoi-

tza-toki bat okupatzen egon izanaren arabera, zerbitzuari lotutako nahiz lotu gabeko prestazio baten bitartez. Hurrengo taulan, itxarotedenborari buruzko datuak azaltzen dira (egoitza publiko edo itundu bat adjudikatzeko zain dauden pertsona guztiak), bai eta egoitza batera sartzeko zain beren etxebizitzan zeudenen datuak ere:

Data	Pertsonen etxean ematen duten itxarote-aldia, batez beste (egunetan)	Batez beste itxarote-aldia (egunetan)
2015-01-01	105	558
2016-01-01	87	497
2017-01-01	91	359
2018-01-01	78	479
2019-01-01	81	359
2019-07-01	77	438

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, NA-6900 errepidearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasunari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera NA-6900 errepidearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segur-

tasunari buruzkoa zen, eta 2019ko urriaren 22ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/POR-00232).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arauk, Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar dituen bi kideak hautatzekoak.

Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin adosturik, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Forudekretuak, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duenak, 13. eta 15. artikuluetan ezarri eta definitu zituen Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluaren izaera eta eginkizunak. Kontseilu horren osatura apirilaren 5eko 166/2004 Foru Dekretuan zehaztu zen, zeinak arautzen baitu kontseilu hori. Bada, foru dekretu horren 5.3. artikulua xedatzen du kontseiluko bi kide hautatuko dituela Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, zeina gaur egun Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordea baita.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak, urriaren 21eko idazki batean, adierazi zuen ezen aipatu kontseilua gaur egun berritze-fasean dagoela.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du arau berezirik aurreikusten Legebiltzar honek aipatu Kontseilurako hautatu beharreko kideen hautaketarako. Hori dela eta, Erregelamenduko 37.1. bederatzigarrena artikuluar jarraituz, prozedurazkoa da Mahaiak Eledunen Batzarraren boto loteslearekin batera onets ditzala aipatu hautaketa arautzen duten arau bereziak.

Horrenbestez, ondokoa ERABAKITZEN DA:

Lehena. Arau hauek onestea Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar dituen bi kideak hautatzeko:

1. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordeko lehendakariari aurkeztuko dizkiote hautagaitzak. Ez dute zertan Legebiltzarreko parlamentari izan. Hautagaitzak aurkezteko epea heldu den azaroaren 7ko 17:30ean bukatuko da.

2. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean egingen da hautaketa, boto-paper bidezko bozketa isilpekoan.

2. Aldi berean hautatuko dira bi kideak, eta, zenbat postu hautatu behar den, boto-paperean horrenbeste izen jarri ahalko ditu batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak.

4. Boto gehien lortzen dituzten bi hautagaiak izanen dira hautatuak.

5. Postuetakoren batean berdinketa gertatuz gero, berdinketa hautsi arte errepikatuko dira bozketak.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

